2022IKIE0018

ESKORIATZAKO UDALERRIAN ELURRA KENTZEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA.

1. baldintza. Kontratuaren helburua.

Baldintza agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuak helburu izango du Eskoriatzako errepide, bide eta sarbide publikoetatik elurra kentzea eta horiek garbitzea espedientean jasotako eta kontratu izaera izango duen dokumentazio teknikoaren arabera.

2. baldintza.-

Zerbitzuak/prestazioak eta aldizkakotasuna. Zerbitzua udal bideetan eskainiko da eta lehentasuna izango dute Eskoriatzako udaleko baserrietarako bideek, une bakoitzean Udaletik emandako aginduak jarraituz.

3. baldintza.- Kontratua egikaritzeko baliabide pertsonalak eta materialak.

Esleipendunak behar bezala aseguratuta izan beharko ditu bere menpeko langile guztiak, eta erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko ditu egin beharreko lanetan hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte-galerak estaltzeko.

Eskoriatzako Udalak jarriko ditu elurra kentzeko pala eta hortzak, udal biltegian jaso beharko direnak kanpaina bakoitzaren hasieran eta udalak esandako biltegian laga kanpaina amaitutakoan. Esleipendunak bi traktore izan beharko ditu dagozkion gidariekin, eta gutxienez, laguntza ibilgailu bat (4x4 ibilgailua atoiarekin edo antzerakoa) traktoreei gatza eramateko eta beste laguntza lan batzuk egiteko. Esleipendunak bere telefono zenbakia eman beharko die elizate guztietako alkateei. Eguneko 24 ordutan prest egon beharko da zerbitzua emateko.

4. baldintza.- Kontratuaren iraupena.

Kontratu honek 2 urteko indarraldia izango du sinatzen den egunetik hasita.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO DE LOS SERVICIOS DE LIMPIEZA Y RETIRADA DE NIEVE EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA.

Cláusula 1ª.- Objeto del contrato.

El objeto del contrato del servicio de limpieza y retirada de nieve de los caminos, viales y accesos públicos dentro del termino de Eskoriatza, de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.

Cláusula 2ª.-

Servicios/prestaciones y periodicidad. El servicio se prestará en los caminos municipales , dando prioridad a los caminos que dan acceso a los caserios del Municipio de Eskoriatza y siguiendo las directrices que en cada momento marquen desde el propio Ayuntamiento.

Cláusula 3ª.- Medios personales y materiales para la ejecución del contrato.

El adjudicatario deberá tener debidamente asegurado a todo el personal a su cargo, debiendo realizar los seguros de responsabilidad civil que cubran posibles daños a terceros en la realización de los trabajos contemplados.

El Ayuntamiento de Eskoriatza proporcionará la pala y cuchillas quitanieves, que los recogerá en el almacén del Ayuntamiento al principio de cada campaña y los dejará en el almacén que se le indique al final de campaña. El adjudicatario dispondrá de dos tractores con sus respectivos tractoristas, así como al menos un vehículo de apoyo(todo terreno con remolque o similar), que suministrará la sal a los tractores y realizará otros trabajos de apoyo.

El adjudicatario facilitará a todos los alcaldes de las anteiglesias su número de teléfono. El servicio se prestará con un disponibilidad de 24 horas/día.

Cláusula 4ª.- Duración del contrato.

El plazo de vigencia del presente contrato será de 2 años desde la formalización de contrato.

eskoriatzako udala

obrak eta zerbitzuak

Kodea	A22/1506	**Udala**	ESKORIATZA
CUDO	000.0034.AAAACKM3.9.ztC0		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAACKM39.ztC0		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

Fernando Eskoriatza plaza, 1 · 20540 Eskoriatza · Gipuzkoa · Tel: 943 71 44 07 · Fax: 943 71 40 42 · obraetazerbitzuak@eskoriatza.eus · www.eskoriatza.eus